



572/2022 EBAZPENA, apirilaren 25ekoa, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao ESIko Hematologiako-Hemoterapiako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearen urtarrilaren 25eko 90/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barrualde-Galdakao ESIko Hematologiako-hemoterapiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko martxoaren 7ko EHAA 47. zk. eta 2022ko martxoaren 14ko BOE 62. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko apirilaren 4an amaitu zen.

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearen apirilaren 5eko 502/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hematologiako-Hemoterapiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)


Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.



Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko apirilaren 25a.



Barrualde-Galdakaoko zuzendari gerentea,
Jon Guajardo Remacha



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO HEMATOLOGIA-HEMOTERAPIA ATAL
SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Eukene GAINZA GONZÁLEZ

Baztertuak:

- Inork ez



II. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO HEMATOLOGIA-HEMOTERAPIA ATAL
SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: DAVID CANTERO GONZALEZ jn.

Ordezkoa: AMAIA ETXEBARRIA ALTUNA and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: ANA MARIA IRUARRIZAGA DIEZ and.

Ordezkoa: LORENZO RODRIGUEZ GONZALEZ jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: TOMAS CARRASCOSA VALLEJO jn.

Ordezkoa: JOSE M. GUINEA DE CASTRO jn.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: M.ARANZAZU BERMUDEZ RODRIGUEZ and.

Ordezkoa: ITZIAR PUJANA ZALDEGI and.

Laugarren batzordekidea

Titularra: JUAN CARLOS GARCÍA RUIZ jn.

Ordezkoa: MARÍA ELENA AMUTIO DÍEZ and.

Idazkaria:

Titularra: AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO and.

Ordezkoa: MAITE YEREGUI HUARTE and.